

la Estudiantina Española
está reunida en *La Urbana*.

Yo que por solo instrumento
suelo tocar el violón,
os traigo en este momento
el arpa del sentimiento
con cuerdas del corazón.

¡Alzad vuestras nobles frentes,
pues los que os quieren copiar
mueren ante los presentes,
como arroyos y torrentes
todos mueren ante el mar!!

Todos los comensales abrazaron al laureado poeta, quien de nuevo causó la hilaridad con sus gracias poéticas, mereciendo todas ellas infinitud de aplausos.

Contribuyeron también al mejor resultado de la fiesta Zabaleta y Erviti en el piano, Ibarguren con el violín y Castañeda y Aróstegui con sus cantos.

Damos á todos nuestro sincero parabién, deseándoles que en años sucesivos vuelvan á repetirse reuniones como la celebrada.

ORMACHORIYA (GORRIÓN)

Chori maliziz jantxitakua;
urtien era danetan
ikusten dana, borda, baratzan,
kalian eta plazetan,
begi zorrotzduen eziñ egona
lotxa gabia benetan,
negu beltzko aize izoztu,
elurte gogor ayetan,
dirudiyena indar geyago
dubela ego lumetan.

Eztu kantatzen; chirriyo bat du
kanporatzen indarrian,
baña deyartan bada zerbait on
aren biyotz barrenian;
baldiñ oartzen badu gaitzen bat
oju bildur šamurrian
umechuari ariyaziyaz
dala gaitz ura urrian,
bera kontuan ernai jarriyaz
kabi gordien aurrian.

Miruen gisa chit da gogorra
eta bera ain da piyo,
chori chikiyak zanpatutzia
ezda noski misteriyo;
burrukatzenda aserreturik
ale bat dala meriyo;
beretzat ustez zuena bestek
baldiñ lapurtzen badiyo,
alien jabe egiñ artian
gogor erasoko diyo.

Orla dalare ezta ain charra
chori pizkorren barrena,
jana arkitzen badu deitutzen
lagunari dakiyena;
bilduko dira bere deyera
bat bestiaren urrena,
baña deitzeko serbituko du
bere burua aurrena,
eta aukeran ezta izango
ura mokadu charrena.

Kamaleonen modu artara
eztu mantentzen aiziak
errotan laister pasatzen zaizka
sartzen dituen klasiaik:
¿zeñek ikusi eztu kayolan
kanpotik jaten aliaik
utzirik preso dagon gañua
ikaraz eta gosiak?...,
¡gero ederki tripa beteta
lotsa gabia jantziak!

Negu gaistoko elurte ayek
kanpuak estalitzian,
aize jelatu chistulariya
agintaritzan jartzian,
egaa ziarrez geldituko da
tellatuaren ertzian,
gero jabia balitz bezela
lasai baserri-echian
sartuta zerbait eramango du
moko motz gogor beltzian.

Pasatzen da landa, basuan,
zelai, baratza, bordetan,
ikusitzen da eliz dorrian
nola pareta zarretan;
galtzada bide, zabal, chigorran,
kalian eta plazetan,
ganaduaren inguruan ta
kanpo ollotokiyetan,
tripazayaren modu berian
jana dan leku danetan.

Arrak belcha du pechu azpiya;
luma kolorez ñabarria,
moko motz artan bordoi senduak
añian badu indarra;
ezta chirita eta chepechen
moduan medar igarra,
naiz denboraren meriyo izan
erarian zar šamarra,
pill-pill ederki maniatuta
ezta mokadu char charra.

V. IRAOLA.

